



Lan gutxi izan zuten hauteskondeetako mahai kideek bozkek zenbatzeko, Lasarte-Oriako herritarren ehuneko txiki bat gerturatu baitzen bozkatzera.

## Bozka gutxi Europara

■ Atzo burutu ziren Europako Legebiltzarreko hauteskondeetan, herritar kopuru urriak eman zuten bozka

Europako Legebiltzarreko hauteskundeak burutu ziren atzo Estatu osoan.

Lasarte-Orian, Udal edo Eusko Legebiltzarreko hauteskondeetan ez bezala, herritar kopuru murrizta hurbildu zen egoitza eta mahai ezberdinetara.

Ez zen arazo handirik egon eta mahaiek 20:00etan puntual itxi ahal izan zuten bozka zenbaketa egiteko. •



### Euskaraz bizitza aztergai /4-5

Udal Euskaltegiko ikasleek euskaraz hitz egiteko dituzten aukerak eta zailtasunak aztertu dituzte ikasturtean. Galdeketa baten bidez egin dute ikerketa eta honi esker, zazpi ikasleek euskaraz bizi ahal diren edo ez azaltzen dute eta euskaraz bizitzeak zer suposatzen duen haientzat. •

### KIROLAK / 2

**Lasarte-Oriako  
Kirol Zerbitzuak  
Udako eskaintza  
aurkeztu du**

### GIZARTE ZERBITZUAK / 3



**Atsobakar egoitza  
egokitzeko  
hitzarmena sinatu  
du Udalak**

### AISIA/6

**Ikasketa  
iraunkorra hizpide  
Emakumeen  
Zentro Zibikoan**

## Australiako hotsak

Iban Nikolai musikariak Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian didgeridoo kontzertua eskaini zuen ostiralean. *Xpressionk* elkarteak Udalaren laguntzaz antolatzen duen kontzertu honetan, Australiako doinu etnikoak entzuteko aukera paregabea egon zen, baita Garrotx.loren irudi ederren muntaiak ikusteko ere. Kontzertuan zehar, didgeridoo eta instrumentu ezberdinak jotzen joan zen, hauekin duen trebetasuna erakutsiaz. •



**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278



**ELEKTRIZITATEA  
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

ATLETISMOA

**Domina uztak jarraitzen du**

Lehengo asteburuan, maiatzak 30, LOKEko Gaizka Ormazabalek 100 eta 400 metroetako lasterketan zilarrezko domina eskuratu zuen Gipuzkoako Junior, Jubenil eta Beteranoen Txapelketako azken jardunaldian.

Bestalde, Gasteizen burutu ziren Euskadiko eskolarteko txapelketetan, Gipuzkoako taldean Leire Amiano eta Olatz Flores lasarteoriatarrek parte hartu zuten eta beste bi domina ekarri zituzten herrira.

Olatzek 100 metroko proba irabazi zuen eta Leire bigarren bukatu zuen pertika proba.

Honetaz gain, jubenilen mailako Espainiako Autonomi Erkidegoen arteko txapelketa ere lehiatu zen Avilesen.

Honetan, LOKEko Unai Imaz eta Irati Larrañaga lehiatu ziren. Unai finalerako sailkatu eta 8. postua eskuratu zuen; Iratik, berriz, altueran 1,40 metroko jauzi zituen, bere markatik 10 zentimetrora. •

FUTBOLA

**Ostadarreko Futbol Eskola**

Beste kategorietako taldeen antzera, Ostadarreko Futbol Eskolako neska-mutilak ere martxan hasiko dira aurki.

Futbol eskolan parte hartzeko baldintzak 8 eta 10 urte bitarteko haurra izatea, Buruntzaldeko kiroldegietako bazkide izatea eta Lasarte-Orian biziitzea dira.

Izena ematea Ostadarreko egoitzan egingo da, gaur hasi eta ekainaren 19ra bitartean, arratsaldetako 19:00etatik 20:00tara.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, plazak mugatuak dira eta iaz parte hartu zuten neska eta mutilek lehentasuna dute. •

BOLA-JOKOA

**Unai Iribar Gipuzkoako txapeldun ordea**

Maiatzaren 31ean, Hernaniko bolatokian, Emakume, beterano, jubenil eta infantilen Gipuzkoako txapelketa burutu zen eta bertan lehiatu ziren Ostadarreko eskolako gazteak eta beterano bat.

Lehia handia egon zen maila guztietan eta Ostadarreko taldea ez zen esku hutsik bueltatu Lasarte-Oriara, Unai Iribarrek 21 birla bota eta zilarrezko postua eskuratu baitzuen infantil mailan. •

# Udan kirol eskaintza zabala

## ■ Udal Kirol Zerbitzuak adin guztietarako ekimenak eskaintzen ditu

Udaleko Kirol Zerbitzuak udarako ikastaro sorta antolatu du herriko heldu, gazte eta haurrentzat.

Aurten, gainera, bi nobedade izango dira: 2 urte baino gutxiago duten haurrentzako igeriketa ikastaroa, eta, bestetik, piragua ikastaroa.

**Haurrentzako jarduerak**

Uda izanik, uretan egiteko ikastaroak antolatu dituzte bereziki haurrentzat.

Lehenengo aldiz, hilabete gutxiago umeentzat igeriketa ikastaroa izango da. 6 hilabeteetik 2 urtera arteko hurrek izango dute uretan murgiltzen ikasteko aukera, eta 8 plaza daude. 5-4 urte bitarteko haurrentzat, berriz, 8 plaza, beste 10 plaza 7-6 urte bitarteko gazteentzat, eta, azkenik, 15 plaza 7 urtetik gorakoentzat.

Horretaz gain, *Jostakiro*lakin izeneko jarduerak antolatu dute Ttakun elkartearekin elkarlanean, eta 5-9 urte bitarteko gaztetxoentzat izango da.

Ikastaro horiek guztiak oro har uztailean hasi eta irailen amaizuko badira ere, ekainaren 25erako *Uretako Festa* eguna antolatu dute.



Indoor txirrindularitza da Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak udan eskaintzean dituen jardueretako bat.

Egun horretan, 125 haur espero dituzte igerilekuan, eta goizez izango dira ekintzak.

**Helduentzako ikastaroak**

Helduentzako ere eskaintza zabala izango da. Aipagarriena, *Kaxkardi* kirol elkarteak antolatutako piragua ikastaroa dago. Motza izango da, uztailearen 6an hasi eta 11n bukatuko baita.

Uretatik kanpo egingo diren ikastaroei dagokienez, 12 urtetik gorako lasarteoriatarrentzat honako ikastaroak izango dira aukeran: indoor txirrindularitza edo spinning, pilates, tonifikazioa eta aerobika.

Igerilekuan, berriz, honako hauek egingo dira: igeriketa ikastaroa, aquaerobika eta aquagyma. Uztailean hasi eta irailen bukatuko dira ikasta-

roak, baina abuztuan etena eginez.

Asteazken zehar egingo dira ikastaroak eta ordutegia zabalda da. Ikastaro horietan izena emateko epea gaur bertan ireki da.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko kiroldegira hurbildu edo 943 376 182 zenbakira deituaz egin daiteke. •

## Maialen Chourraut Europako seigarren

Erresuma Batuako Nottingham herrian jokatu den Europako Slalom txapelketan lehiatu zen lehengo astean Maialen Chourraut.

Sailkapenetako lasterketan akats bat izan zuen, baina bigarrenengo lasterketan aurre egin eta finalerretako lehia sartu zen. Hauetan arazorik gabe aurrera egin zuen.

Finalean, berriz, lehiaketa ez zen erraza izan lasarteoria-

tarrantzat. Arazo ugari izan zituen markatutako bide jarraitzeko eta akats batzuk egin zituen. Eta, hala ere, seigarren bukatu zuen, brontzeko dominatik 2 sekundora.

Maialek bere blogean diotenaren arabera, Europako txapelketan aritzea positiboa izan da eta emaitza ez da txarra, baina hobea izan zitekeen. •



## Giroko porrako sariak banatu ziren

Giroa bukatu da eta horrekin batera, Ostadar Kirol fundazioak egiten duen porraren sari banaketa burutu zen ostiralean.

Ilargi tabeman egin zen sari banaketa. Hau izan da puntu gehien lortu dituen taberna eta antolatzaileek Lore jabeari eman zitoten saria, Urgul jatetxean bi pertsonentzako afaria.

**Sarituak**

*Tor-Tor* eta *Kaiku Patxi* izan dira Giroko porrako bi leheneongo postuak eskuratu dituz-

tenak eta antolatzaileek ekitaldian zegoen ordain saria eman zieten.

Honetaz gain, zozketatutako urdaiazpikoak ere banatu ziren, ez ziren guztiak agertu, baina hauek izan dira zortedunak: Haritz-Maddi, *Proyecto Fenix*, Iñaki Sueskun, Alexito, *Totof van Poppel*, Aitor Hernando eta Julen.

Baina zorte ona dutenek ez ezik, ohikoa denez porrako azkenak ere, *LJN*-k izan zuen bere saria, urdaiazpikoa. •

# Ikasturte bukaera iristear

## Institutuko 2. Batxilergoko ikasleen diploma banaketa burutu zen

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako ikasleei gutxi falta zaie dagoeneko 2008-09 ikasturtea bukatzeko. Horren seinale, Lasarte-Usurbil Institutuko 2. Batxilergoko diploma banaketa dugu.

Ostiralean burutu zen ekitaldian, ikasleak, irakasleak eta gurasoak batu ziren gazte hauen hezkuntza garai bati bukaera emateko.

Ekitaldiak bi zati ezberdin izan zituen, batetik Institutuko zuzendari eta biologia irakasle den Ester Urrutiak *Charles Darwin ikertzaile nekazaria* hitzaldia eskaini zuen.

200 urte dira ikertzailea jaio zenetik eta 150 bere *Espezien jatorria* liburua argitaratu zenetik, horregatik ikertzaile ingelesaren bizitza eta honek egindako bidaia eta ikerketei buruz hitz egin zuen ordu erdiz.

### Ikasle nabarmenduak

Ostean, gai guztiak gaituzten ikasleen diploma banaketa egin zen.

Hauen artean, hiru ikasle ikasturtean zehar egin duten lana nabarmendua izan zen, ohorezko matrikula eta aipamen berezien bidez.



Goiko argazkian, ikasleak diploma banaketareen ostean. Behean, aipamen berezia eta ohorezko matrikulako ikasleak.

Honela, aurtengo ohorezko matrikula, Maitena Tellae-txeak eskuratu du eta bi aipamen bereziak, Maria Vegas eta Ane Miren Zugastirrentzat izan ziren.

Baina gazte guzti hauek ezin dute atsedetik hartu. Diploma eskuratu dutenek, aste honetan Selektibitateko azterketak dituzte eta gairen bat pendiente geratu zaien ere errekeraketak dituzte. Beraz, animo eta zorte on guztiei azterketetan. •



## Atsotakarreko egoitza hobetzeko hitzarmena sinatu da

Adinekoen beharrak asetzeko eta beren bizi-kalitatea hobetzeko apustua eginez, Lasarte-Oriako Udalak elkarlanerako akordio bat sinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Akordioa lau urteko gestioen ondorengo emaitza da. Proiektuaren kostua 3,6 milioi eurokoa da eta hitzarmenak jasotzen duenaren arabera Foru Aldundiak %75 abonatu du eta gainontzekoa Udalak finantzatu du.

Akordio honek hiru hobekuntza garrantzitsu ekarriko dizkio Atsotakar Egoitzari: zentroaren erreforma orokorra, Psikogeriatriako Unitate baten sorrera eta Eguneko Zentroaren handitzea.

### Hobekuntzak

Honela, eraikina handitzea eta altzariak bertan bizi diren pertsonen beharretara egokitzea aurreikusten da.

Etorkizuneko Atsotakar egoitzak, gainera, beiraz hornitutako korridorea izango du erdian, aiton-amonek neguan eguzkiaren argia aprobetxa-



Atsotakarreko egoitzan egokitze lanak egitea aurreikusten da. Arg: L-O Udala

tzeko eta honek eraikinaren hegal bat eta bestea lotuko ditu.

Ana Urchueguía alkateak azaldu duen moduan, "egoitza bertan bizi diren pertsonen ezberdinetara egokitzea beharrezko ikusten dugu, izan ere, ez ditugu gure aiton-amonek udalerritik kanpo lekualdatu nahi, beste egoitza batzuetan

egiten duten moduan."

"Horregatik, perfil ezberdinetako adinduentzako espazioak sortuko ditugu, hau da, basikoa, osasun-kargaduna, narriadura kognitiboko perfila eta psikogeriatrikoa," gaineratu du.

Psikogeriatriako Unitate honek 400 metro karratutik gora izango ditu eta 15 per-

tsionentzako plaza izango du.

Eta, azkenik, Eguneko Zentroa 15 plazatik 25era handituko da erantuz egoikiagoa emateko.

### Kalitatezko zerbitzua

Era honetara, beraz, azpiegituraren kalitatea hobetuko da, baina Ana Urchueguía alkatearen ustez, "zerbitzu on baten eta kalitatezko zerbitzu baten arteko ezberdintasuna detaile txikietan dago".

Hori dela eta, momentuko egoera ekonomikoa egonda ere, Udalak berak duela gutxi onartu zuen kontratazio zerbitzua zabaltzea langile kopurua handituz.

Alkatearen hitzetan, "gure aiton-amonek beren ingurunean egoteko aukera izatea defendatzen dugu argi eta garbi, ulertzen baitugu beren bizitzako azken etapan hori izan daitekeela egokiena, eta ildo horretan lanean jarraituko dugu".

Honela, lanak datorren irailean hasia aurreikusten da. •

SAN PEDROAK 2009

## Sorgin dantzaren entseguak hastera doaz

San Pedro jaiak ate joka daukela eta, Sorgin Dantzako desfilea prestatzen hasteko deialdia egin dute.

Bihar, ekainak 9, hasiko dira entseguak, eta astearte eta ostegunetan izango dira Landaberri ikastolan, arratsaldeko 8etatik 9etara.

Komenigarria da desfilean parte hartu nahi dutenak entsegetara joatea. Antolatzailen esanetan, Sorgin Dantza ondo dantzatzeko dutenek ere saioetara joan beharko lukete. •

LANAK

## Arranbideko lur munizipalen erabilera

Lasarte-Oriako Udalak herri-tarrei jakinarazi nahi die, bereziki Arranbideko bizilagunei, Oriako pabilioien atzealdearen eraberritzea dela eta, eskailera mekanikoen ondoan dagoen partzela munizipalaren eremu bat landare-lurra uzteko erabiliko dela epe batez.

Duela bi aste hasi ziren ibai ondoko pasealekua egiteko lanak, Tokian Tokiko Estatu Funtzari finantzatu duena, eta zonalde herretatik ateratzen ari den landare-lurraren kalitatea ikusirik, kontserbatu egingo da eta ondoren etorkizuneko pasealekua loraizaintzara erabili.

Ingurumen-ekintza oso garrantzitsua izango da eta orain degradatuta dagoen hiri-espazio bat errekeratuko du.

Behin ibilbide osoa amaituta, udalerrira ibai ondoko paseon baten bidez bere osotasunean ikuskatzea ahalbidetuko die herritarrei. •

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

## Topaketa irekia Kultur etxean

Bihar, Alkoholiko Anonimoak elkartean nazioarteko egunaren bezperan, Gipuzkoako ordezkariak ateak irekiko dizkiete herritar guztiei Manuel Lekuona Kultur Etxean arratsaldeko 18:30ean burutuko den topaketan.

AA elkartean eta bere kideen errealitatea erakutsi nahi dute eta horretarako, Larrotxene Kultur Etxeko dokumentalen tailerreko kide batzuek egindako, *La Ultima Puerta* izeneko dokumentala estreinatuko dute. •

# Euskaltegitik euskaraz bizitzera

Udal Euskaltegitiko ikasleek hizkuntza ohituren aldaketan izan duten esperientzia jakinarazi dute ■ Euskaltegian lantzen eta hausnartzen dute gaia ikasturtean zehar. ■ Euskararen ikasketa prozesuaren baitan euskararen erabilerak duen garrantzia nabarmentzen dute ■ Euskaraz jarduteko dituzten aukerak aztertzen dituzte

Udal Euskaltegitiko talde batek euskara ikasleek euren hizkuntza ohiturak aldatzeko dituzten aukerei, zehin zehin buruzko buruzko lan bat egin du eta adaketa horrek duen garrantzia nabarmendu. Gaiari buruzko galdaketa egin dute ikasleen artean eta emaitza jaso dugu orriotan.

## Hizkuntza bat ikasten duen ikasleek ikaslan du, baina bai prozesuaren inguruko jarderak ere egiten dituzte.

**H**izkuntza bat ikasten duen ikasleek ikaslan du, baina bai prozesuaren inguruko jarderak ere egiten dituzte. Euskaltegitik euskaraz bizitzera etorriko gara, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak. Euskararen erabilerak duen garrantzia nabarmendu. Gaiari buruzko galdaketa egin dute ikasleen artean eta emaitza jaso dugu orriotan.

## Galderak

- 1.- Zerk ekarri zintuen euskaraz bizitzera etortzea?
- 2.- Zure inguruan (familia, lagunak, irakaslea, irakasleak...) bai al dugu ikasleak euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna?
- 3.- Euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleek, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.
- 4.- Lehen irakurle zara euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.
- 5.- Euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
1.- Iatorri: niretzat, euskaraz bizitzera etortzea da euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.




**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
2.- Nire inguruan euskaldun ugari dago, baina ez dut euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.




**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
3.- Niretzat euskaraz bizitzera etortzea da euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.




**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
4.- Lehen irakurle zara euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
5.- Euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
6.- Euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**Mª ANGELICA MARTNEZ** (18 maila, 4. urratsa)  
7.- Euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.




Euskaltegitiko zenbait ikasle aukeratu dituzte euren esperientziaren berri emateko eta diagrosteko bat egiteko.

## Orain azterhetak gaitziteza eta EGA titulua ez dira hain inportanteak, euskararen mundua eta kultura ezagutzera baizik.


Nola diradiz mardan prozesua? Normaltasunez. Gauzak muturrean ematen badira, eta euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.




**ANDREA GARCIA** (2. maila, 7. urratsa)  
1.- Ni beste herrialde batetik (Uruguaiti) dator eta euskara jakiteko integratzea erantzoko zuela iruditu zait. Baina ni gauza bera iruditu zait euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.




**ANDREA GARCIA** (2. maila, 7. urratsa)  
2.- Niretzat euskaraz bizitzera etortzea da euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**ANDREA GARCIA** (2. maila, 7. urratsa)  
3.- Niretzat euskaraz bizitzera etortzea da euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**ANDREA GARCIA** (2. maila, 7. urratsa)  
4.- Lehen irakurle zara euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.



**ANDREA GARCIA** (2. maila, 7. urratsa)  
5.- Euskararen munduan euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.

**Bai Euskarari Ziurtagarria** balioa eta berrikuntza - prestigio eta inbrogazioa

**1.600 entitate baino gehiago zehar daude**

**Mª JESUS GARCIA** (2. maila, 10. urratsa)  
1.- Orain dela urte asko izan nintzen euskaltegian. Lehenengo aldiz, Orduan, nire irakasleak euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.

**XABIER ETXEBERRIA** (18. urratsa)  
1.- Urte asko da euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.

**MODISTA HERRERO** (2. maila, 7. urratsa)  
1.- Euskaraz ikasi nahiake ikaslan nintzen euskaltegia. 37. urte daramatzat Euskal Herrian bizitzen; baina ikasleko garaia Etorri nintzenean ez nekien euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.

**VERÓNICA LÓPEZ DÁVILA** (2. maila, 7. urratsa)  
1.- Hala da nire bigarren urtea euskaltegian. Orain dela hiru urte ospakizunarekin nintzen, eta konuagatzen nintzen Etorri nintzen urtean. 2007an hasi nintzen euskaraz bizitzera etortzeko gaitasuna duela esaten dute irakasleak, baina horren ondoren ere egiten dituzte jarderak.

**ORAIN AZTERHETAK GAITZITEZA ETA EGA TITULUA EZ DIRA HAIN INPORTANTEAK, EUSKARAREN MUNDUA ETA KULTURA EZAGUTZERA BAIZIK.**

**ORAIN AZTERHETAK GAITZITEZA ETA EGA TITULUA EZ DIRA HAIN INPORTANTEAK, EUSKARAREN MUNDUA ETA KULTURA EZAGUTZERA BAIZIK.**

**ORAIN AZTERHETAK GAITZITEZA ETA EGA TITULUA EZ DIRA HAIN INPORTANTEAK, EUSKARAREN MUNDUA ETA KULTURA EZAGUTZERA BAIZIK.**

**ORAIN AZTERHETAK GAITZITEZA ETA EGA TITULUA EZ DIRA HAIN INPORTANTEAK, EUSKARAREN MUNDUA ETA KULTURA EZAGUTZERA BAIZIK.**

# Ikasketa iraunkorrari buruzko hitzaldia Emakumeen Zentro Zibikoan

TXINTXARRI

Aurrera begira zein ikastaro antolatzea gustatuko litzaikeen esateko aukera izango dute herriko emakumeek. Horretarako, hitzaldia antolatu da biharko, ekainaren 9rako, Emakumeen Zentro Zibikoan.

Hitzaldia Mari Mar Etxebeste, Usurbilgo ikasketa bitartekotza zerbitzuko koordinatzaileak emango du, *Ikasketa iraunkorra, ez ikasten ikastea* izenburupean.

Bi orduko emanaldian eskualdean dagoen ikasketa iraunkorrerako zerbitzuari buruz, *In-formatzen*, eta honek eman ditzaken laguntzen berri eman nahi dute herriko emakumei biharko hitzaldian.

Hitzaldi honen bidez ere, zerbitzuaren arduradunek jakin nahi dute emakumeek zein behar duten, hau da, zein ikastaro antolatzea gusta-

tuko litzaikeen. Era horretan, eskatutako ikastaroak non jaso ditzaketen esango diete emakumei, eta, kasu batzuetan, baita antolatu ere.

Era askotakoak izan daitezke, adibidez, zeramika ikastaro bat antolatzea proposa dezakete emakumeek, baina baita norberaren formazioarekin zerikusia dutenak ere, esate baterako, informatikari buruzkoak.

## In-formatzen

Herrian lehenago ere antolatu dira beharrean araberako ikastaroak. Biyak Bat elkarte-koentzat informatikari buruzko ikastaroa antolatu da, eta alfabetatze ikastaroak ere badira bazterketa soziala bizi dutenentzat.

Biharko hitzaldira joan ezin duten emakumeek Interneten jaso dezakete zerbitzuaren inguruko berri, [www.in-formatzen.com](http://www.in-formatzen.com) helbidean.



Hurrengo ikasturtera begira, Zentro Zibiko emakumeek egoitzean zein ikastaro antolatu erabakiko dute.

## Bideoforuma

Bestalde, ostirala arratsaldean hilabeteko bideoforuma burutu zen Emakumeen Zentro Zibikoan.

Bertara gerturatu ziren emakumeek, Pilar Arrazola antropologoaren laguntzaz *Todo sobre mi madre* filma ikusi eta aztertu zuten.

Honela, emakumeen emozioak eta honen jarreraz, egun irudikeriak duen garrantziaz edo drogak eta alkoholarri buruz mintzo ziren. •



Luisa Etxenike idazlearekin, bigarren ezkerretik hasita, solasaldi ederra izan zuten.

## Luisa Etxenike idazlearekin solasean

Ostirala arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxean burutzen den *Literatur Tailerra* amaitu zen.

Eta ikasturtea ixteko ekitaldi berezia antolatu zuten, Luisa Etxenike idazlearekin solasaldia.

Ekitaldian Kultura saileko burua den Jone Altuna eta *Literatur tailerreko* emakumeak bildu ziren eta giro ederrean *El ángulo ciego* liburuari buruzko galderak egin zizkioten idazle donostiarri.

## Kontzertu ederra ostegunean Pacheco's Show taldearen eskutik

Ostegun gauean kontzertua bikaina eskaini zuen Pacheco's Show taldeak Jalgin; hurbildutako entzuleen iritziz, kalitate handikoa. Lau musikaririk osatzen dute taldea: Roberto Pacheco tromboiarekin, Javier Mayor kontrabaxuarekin, Alejandro Soriazu pianoan eta Hasier Oleaga baterian.

Kontzertua entzutera jende gutxi hurbildu bazen ere, Hasier Oleagak, bateriak oso gustura aritu zirela jotzen adierazi zuen, etxean bezala sentitu zirela. Bertaratutakoak ere, oso gustura egon ziren kontzertua entzuten eta merezitako txalo zaparradekin eskertu zieten musikariei eskainitako kontzertua. •



Kalitate handiko kontzertu ederra eskaini zuten Jalgin ostegunean.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: [txintxarri@ttakun.com](mailto:txintxarri@ttakun.com) • Publizitatea: [publizitatea@ttakun.com](mailto:publizitatea@ttakun.com) • Administrazioa eta banaketa: [administrazioa@ttakun.com](mailto:administrazioa@ttakun.com); [ttakun@ttakun.com](mailto:ttakun@ttakun.com).

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

**Erakusketa**

25. URTEURRENA OSPATZEKO LASARTE-ORIAKO BELTZAK ERRUGBY TALDEAREN argazki erakusketa ikusgai egongo da. Doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



**Erakusketa**

MARIAN IBARGOEN, Lasarte-Oriako bizilagunen elkarteko pintura eskolako ikaslearen margoak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan



**Euskarazko antzerkia Jalgin**

Samara Veltek idatzitako ETA KARMELE? antzezlana eskainiko dute Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi zarauztarrek.

OSTIRALA 12AN, 22:30EAN  
JALGI KAFE ANTOZKIAN  
EUSKARAZ

Astelehena, 8

**Antzerki Astea**

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. Antzerki Astean ZABALETAKO TALDEA ETA LH 4. MAILAKO taldeek antzeztuko dute. Kulturetxean, 19:00etan. EUSKARAZ

Asteartea, 9

**Antzerki Astea**

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. Antzerki Astean LH 3. ETA LH 5. MAILAKO taldeek antzeztuko dute. Kulturetxean, 19:00etan, EUSKARAZ

Asteazkena, 10

**Antzerki Astea**

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. Antzerki Astean LH 1. eta LH 2. mailako taldeek antzeztuko dute. Kulturetxean, 19:00, EUSKARAZ

Asteartea, 16

**Hitzaldia**

BESOKO UMEENTZAT ETA HAURRENTZAT MUGIMENDUAK DUEN GARRANTZIA hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

**Eskutitzak**

**Alkoholiko Anonimoak: Gizarteari zabal zabaliak dagoen errealitatea**

AA beste urteurren baten (74) atarian delarik, eta hitzak konbentzitzen gaituzten bezala, gertarek lerratu egiten gaituztela jakinik, elkartearen Gipuzkoako ordezkariak atea irekiko dizkie Gipuzkoako jendarte osoari eta topaketa ireki bat egingo dute AAren nazioarteko egunaren bezperan, ekainaren 9an, arratsaldeko 18:30ean, Lasarte-Oriako Kultur Etxean, Geltoki kalea 18an. Gipuzkoako gizarte osoa, ordezkari politiko eta sozialak, probintziako komunikabide guztiak eta orain artean benetan oso irekia izan ez den talde hau ezagutu nahi duten hiritar guztiak gonbidatuta daude jardunaldi honetara.

75. urteurrena hortxe da eta urteurren horri begira oraindik zabalagoak izan nahi dugu, gizarte-erakundeek euren laguntza eskaintzen baldin badigute: gure errealitatea, ezer ezkutatu gabe, garden-tasun osoz erakutsi nahi dugu. Batere beldurrik gabe, alegiazko alkoholikoaren ibilbidea erakutsiko dugu, alkohola hartzen hasi den unetik azken egunetako porrotaraino.

Larrotxene Kultur Etxeko dokumentalen tailerreko kide diren Xabi Vicente, Javier Herrero, Mikel Insausti eta Ioane Galarzak egindako, "La Ultima Puerta" izeneko dokumentala estreinatuko dugu, eta bestalde, gonbidapen honekin hasitako bidearen laburpena egingo dugu, hau da, elkartearen jokabidea zabalki agertzeko ematen ari garen pausuen kontaketa.

Guztion zain izango gara

**Gipuzkoako Alkoholiko Anonimoak**

**Esazu irratiko programazioa**



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzte ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

**Liburutegiko ordutegia**



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18

Tel.: 943 376181

**Oharrak**

**Enkarterrietara irteera**

Maria Auxiliadoraren taldeak antolatuta ekainaren 21ean Enkarterrietara irteera bat antolatuta da. Goizean Karrantza eta Pozalaguako kobazuloak bisitatuko dira eta arratsaldean Balmasedako herria. Izena emateko deitu telefono hauetakoren batera: 943 363675 (Chelo) eta 943 360042 (Ixabel)

**Elikagaien manipulatzailerik ikastaroak**

Elkolabek elikagaien manipulatzailerik bi ikastaro antolatuko ditu Osasun zentro berriko eraikuntzako bigarren solairuko balio anitzeko gelan, Kontsumoko sailaren laguntzarekin. Batetik arrisku gutxi ikastaroa izango da, hau da, minoristei eta elikadura dendei zuzendutakoa,

ekainaren 16an burutuko da 14:00etatik 17:00etara; eta bestetik, arrisku handikoa, ostalaritzako sektoreari zuzendua, ekainaren 17 eta 18an 16:00etatik 19:00etara. Izena eman edo informazio gehiagorako, 943 533 303 harremanetarako zenbakira deitu.

**Marrazki eta pintura ikasturte bukaera**

Lasarte-Oria bizilagunen elkarteko Marrazki eta pintura ikastaroa ekainaren 20ean bukatzen dela jakin arazten da.

**Danborrada entseguak**

San Pedro jaiak hilaren bukaeran direla eta, danborrada entseguak hasi dira. Astelehena eta asteazkenetan izango dira Sasoetako ikaste-

txeko gimnasioan, 18:30ean haurren txanda izango da eta 20:00etatik aurrera helduena. Garaiz iritea eta entsegetara joatea erregutzen da. Entsegu kopurua kontuan izango da. Honetaz gain, ekainaren 24ean helduek ez dute entsegurik izango eta Blas de Lezoko lokalera joan beharko dute 19:00etatik 20:00etara jantziaren bila.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

# Agur Teresa sorginari

## TXINTXARRI

Egun hauetan aldapa igo eta eguraldiari aurre eginez Zabale-tako jaietaz gozatu edo festan parte hartzera hurbildu den herritar kopurua handia izan da.

Ostiralean arratsaldean eurik atsedena eman eta haurrek ederki gozatu zuten Teresa sorginaren etorrerakin eta aurretik egin ziren merienda eta opari zozketarekin.

Ostean, helduen txanda izan zen eta Antonio Blas plaza musikaz bete zen. Lehenik *Xumela* koruak betiko abestiak eskaini zituen kantua afarian; Landaberriko dantza garaikide taldeek gaur egungo doinu eta musika etnikoan oinarritutako dantzak eskaini zituzten eta, amaitzeko, dantzaldi aparta antolatu zen.

### Eguraldiak ez geratu

Larunbatean euria zaparrada batzuk egin zituen arren, haurrek ederki ibili ziren puzgarrietan eta barre eta algara ugari entzun ahal izan ziren *Hipo eta Tomax* pailazoaren herri kirolak emanaldian.

Honetaz gain, helduentzat eskoba eta mus txapelketa anto-

latu ziren, irabazleak eskoban Larrekoetxekoko Pako eta alaba eta musekoan, berriz, Aritz eta Gari gazteek lortu zuten garaipena.

Haur eta helduentzat herrikirolak ere egon ziren gose egiteko. Ostean, afaria eta bertso saioa. Iñaki Zelaia, Unai Agirre, Miren Artetxe eta Ane Labaka fin aritu ziren oholtzan.

Gazte ugari bildu zen, Usurbilgo *Mendeku Itxua* eta *Skasti* taldeek eskaini zuten rock gauean.

### Proba mista

Atzo, berriz, Landaberri ikastolako gaztetxoaren dantza saioa ohiturazkoa den proba mistoaren atari izan zen.

Tellerigaina, Auzokoak eta Erkide fin ibili ziren arren, Larrekoetxe-Ostadar nagusi izan zen.

Arratsaldean, toka txapelketa egon zen eta haurrek ere ongi gozatzeko aukera izan zuten Porrotxen bihurrikeriak eta muxuekin.

Azkenik, Teresa sorgina hurrengo urtera arte agurtu baino lehen, Usurbilgo *Txerriki* taldearen kale antzerkia ikusi ahal izan zen. •



*Hipo eta Tomax* pailazoek herri kirol erronka bereiza ekarri zuten Zabaleta Auzoko Antonio Blas plazara.



Ostadar-Larrekoetxek proba guztia aurretik egin zuen arren, azken txanpan beste taldeek aldea kendu zioten.



Miren Artetxe eta Ane Labakak, besteak beste, okupazioa izan zuten bertsoen gaia.



Larunbata arratsaldean, eguzki izpiak aprobetxatuz haurrek ederki egon ziren puzgarrietan.

<p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>DEPARTAMENTO DE EDUCACION UNIVERSIDADES E INVESTIGACION</p> <p>AGENCIA E-Net</p>	
<p><b>IES Hernani BHI</b> A. Iturriaga - K. Labaka</p>	
<p><b>ELEKTRIZITATEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)</li> <li>• Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)</li> </ul>	<p><b>MEKANIKA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mekanizazioa (Erdi Maila)</li> <li>• Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)</li> </ul>
<p><b>A. ITURRIAGA</b> • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120</p> <p><b>K. LABAKA</b> • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI</p> <p>institutua@hernanibhi.com • www.hernanibhi.com</p>	
<p><b>AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 12ra</b></p>	